



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Imanol Baleztena Elizalde.
Leire Bazterrika Loiarte.
Francisco Michelena Celayeta.
Ezequiel Loiarte Santesteban.
José María Michelena Erasun.

2016ko uztailaren 4an, 08:00etan, ohiko biltzarrean elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Dominguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKUREKO AKTAK ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera banatu ziren aurreko 2 Bilkureko aktei. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu dira aktak.

2. 2015EKO KONTUAK.

Udalak aldeko txostena eman zuela eta espedientea jendaurrean egon den epean ez dela erreklamaziorik aurkeztu kontutan hartuz, 2/1995 Foru Legearen 242. artikuluaekin bat etorriz, 2015eko kontuak onetsi dira aho batez.

3. AURREKONTU ALDAKETAK.

2016ko aurrekontu orokorrean kreditu aldaketak egiteko 1, 2 eta 3 zenbakia duten espedienteak aztertu ondoren, aho batez erabaki da:

1. Hasierako onespina ematea kreditu aldaketa egiteko 1 zenbakia duen espediente honi (kreditu gehikuntza):

Gastuak. Dotazioa gehitzen zaion aurrekontu partida:

1-3370-62300 Kolunpio berriak	7.661,74 €
-------------------------------	------------

Finantzaketa:

1 75080 Libre xehatzeko diru-laguntza	3.126,55 €
---------------------------------------	------------

1-870 Diruzaintzako gerakin likidoa	4.535,19 €
-------------------------------------	------------

2. Hasierako onespina ematea kreditu aldaketa egiteko 2 zenbakia duen espediente honi (kreditu transferentzia):

Gastuak. Dotazioa gehitzen zaion aurrekontu partida:

1-1533-61900 Inbertsioa herriko bidetan	15.000,00 €
---	-------------

Finantzaketa:

1-1533-21000 Inbertsioa herriko bidetan	-15.000,00 €
---	--------------



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

3. Hasierako onespena ematea kreditu aldaketa egiteko 3 zenbakia duen espediente honi (kreditu gehikuntza):

Gastuak. Dotazioa gehitzen zaion aurrekontu partida:

1-4121-69200 Basogintza lanak 17.458,90 €

Finantzaketa:

1-4320-62300 Ostatuko kaldera -7.000,00 €

1-75000 Diru laguntza baso lanak 9.398,88 €

1-870 Diruzaintzako gerakin likidoa 1.060,02 €

4. Espedienteak jendaurrean jartzea 15 eguneko epean.

4. MENDIKO LANAK.

Espedientean dauden agiriak aztertu ondoren eta Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 73.2 c) eta 74. artikuluek xedatzen dutena kontutan hartuz, aho batez erabaki da:

1. "2016ko KANPAINAN ZUBIETAKO U.B.ko BASO LANAK" izeneko agirian dauden lanak kontratatzeko funtsezko baldintzak onestea, komunitate-publizitaterik gabeko prozedura negoziatua jarraituz. Lanen aurrekontua 13.323,16 eurokoa da (gehi BEZa).

2. Proposamenak aurkezteko gonbidapenak bidaltzea 3 enpresa hauei: Construcciones Mariezcurrena SL, Sasoi Erikuntzak SL eta Excavaciones Mikel Ubiria SL.

5. ZENBAIT ESKARI.

1. Berako eta Baztango Ehiza eta Arrantza Kirol Elkarteak eta Bidasoako Nazak Arrantzale Elkarteak amuarrain eta izokien egoerari buruz aurkeztutako mozioa irakurri ondoren, akordio hauek hartu dira aho batez:

- Zubietako Udalak eskatzen dio Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentuari, "Línea Bidasoa" izeneko eta Mugaireko haztegitik egiten zen proiektua berreskuratzea.

- Zubietako Udalak eskatzen dio Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentuari, espezie aloktono edo inbaditzaileengan eragiteko plan berezi bat.

- Zubietako Udalak eskatzen dio Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentuari, kudeatze eta jarraipen batzordea sortzea, non Udaletxeek eta arrantzarekin zerikusia duten elkarte eta eragileek parte hartu dezaten.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

- Akordio hauek jakinaraztea Nafarroako Gobernuako Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentuari eta mozioaren sustatzaileei.

2. M.S. eta N.E.k baimena eskatu zuten, eskolako beheko solairua erabiltzeko, ludoteka zerbitzua emateko bertan, uztailearen 4tik abuztuaren 5a arte, astelehenetik ostiralera, goizez (10:00etatik 13:00etara). Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da erabiltzeko baimena ematea eskatzaileei, baldintza hauekin:

- Ludotekako jarduera babesteko dagoen aseguruia indarrean egon behar du.
- Garbiketa beraien ardura izanen da.
- Giltzaren ardura izanen dute ere. Epearen bukaeran itzuli beharko dute giltza Udaletxera.
- Baimendutako ordutegitik kanpo antolatzen diren jarduerak, Udalarik jakinarazi beharko zaizkio aurretik.

3. Aho batez onetsi dira bestetan salmenta postuak jartzeko baldintzak:

- Baimena eskatu eta eskuratu behar da aurretik.
- Postuaren luzaera 6 metrokoa izango da gehienez.
- Udal-ordezkariek erabakiko dute postu bakoitzaren kokapena.
- Debekatuta dago petardoak saltzea.
- 10 euro ordaindu behar dira eguneko. Baimena eskuratzean ordaindu beharko da diru-kopuru osoa.

4. Idazkariak irakurri du I.G.Z.k aurkeztu duen idatzia, *Uritzako iturriko* teiltuaren egoerari buruzko kezka azalduz. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da G. andreari jakinaraztea jabetza pribatua dela, Udalak hitz egin duela jabe berriarekin eta jabeak berak konpontzeko konpromezua hartu duela.

5. Aho batez erabaki da 100 euroko diru-laguntza ematea *Gutik Zura* pelikulari.

6. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza:

- 2016/38 zenbakia, 2016ko maiatzaren 3koa, *Mendrasa* parajearen oihan-aprobetxamendua ateratzeko, L.M.k ordaindutako fidantza itzultzea erabaki zuena.
- 2016/39 zenbakia, 2016ko maiatzaren 3koa, *Almizkur* parajearen oihan-aprobetxamendua ateratzeko, P.J.S.ek ordaindutako fidantza itzultzea erabaki zuena.
- 2016/40 zenbakia, 2016ko maiatzaren 3koa, *Albarrena* parajearen oihan-aprobetxamendua ateratzeko, A.E.k ordaindutako fidantza itzultzea erabaki zuena.
- 2016/41 zenbakia, 2016ko maiatzaren 12koa, L.M.M.ren aurka hasitako espediente zigortzailea bukatutzat eman zuena.



ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)

31746

- 2016/42 zenbakia, 2016ko maiatzaren 13koa, R.E.H.ri baimena eman ziona, etxeko ukuilua jartzeko 2 poligonoko 148 partzelako bordan.
- 2016/43 zenbakia, 2016ko maiatzaren 13koa, M.C.O.ri lizentzia eman ziona, *Zubiondoa* eta *Santxokoa* etxeetako fatxadak pintatzeko.
- 2016/44 zenbakia, 2016ko maiatzaren 13koa, L.B.ri eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergako likidazio berria egitea erabaki zuena, *Makutso ardebordako* teilatua konpontzeko.
- 2016/45 zenbakia, 2016ko maiatzaren 20koa, I.S.i lizentzia eman ziona, *Serokoa* baserriko sarrerako atea aldatzeko.
- 2016/46 zenbakia, 2016ko maiatzaren 20koa, M.M.ri lizentzia eman ziona, metro bateko teilatu babesgarria jartzeko *Gartzikoa* etxeko sarrerako ateari eta arkupea eraikitzeko etxearen atzealdean.
- 2016/47 zenbakia, 2016ko maiatzaren 26koa, espediente zigortzaileari hasiera eman ziona, P.S.en aurka, katedun trakzioko makina ibiltzeagatik pistatik gomarik gabe eta oholekin babestu gabe, hormigoian kalteak sortuz.
- 2016/48 zenbakia, 2016ko maiatzaren 26koa, espediente zigortzaileari hasiera eman ziona, J.M.V.ren aurka, katedun trakzioko makina ibiltzeagatik pistatik gomarik gabe eta oholekin babestu gabe, hormigoian kalteak sortuz.
- 2016/49 zenbakia, 2016ko ekainaren 2koa, obrak hasteko epea luzatzea urte baterako erabaki zuena, Zubia Kaleko 7 A zenbakia duen etxebizitzako sarrerari teilapea eraikitzeko. F.S. da sustatzailea.
- 2016/50 zenbakia, 2016ko ekainaren 2koa, P.S.i lizentzia eman ziona, *Elamenea baserriko* ardi-bordako teilatuari losak kendu eta teilak jartzeko.
- 2016/51 zenbakia, 2016ko ekainaren 15koa, *Garardi* parajea oihan-aprobetxamendua ateratzeko, J.P.k ordaindutako fidantza itzultzea erabaki zuena.
- 2016/51 A zenbakia, 2016ko ekainaren 16koa, 2016ko lehenengo (1/2016) aurrekontu aldaketa prozedurari hasiera eman ziona.
- 2016/51 B zenbakia, 2016ko ekainaren 16koa, 2016ko bigarren (2/2016) aurrekontu aldaketa prozedurari hasiera eman ziona.
- 2016/51 C zenbakia, 2016ko ekainaren 16koa, 2016ko hirugarren (3/2016) aurrekontu aldaketa prozedurari hasiera eman ziona.
- 2016/52 zenbakia, 2016ko ekainaren 20koa, *Parazelaieta* parajea erletokia eraikitzeko lizentziaren eskualdatzea onetsi zuena. M.I.G. da lizentziaren jabe berria.
- 2016/53 zenbakia, 2016ko ekainaren 21koa, J.M.ri lizentzia eman ziona, *Joanamaría* etxeko ganbaran egurrezko itxiera eraikitzeko, trasteak gordetzeko 2 gela jartzeko bertan.

7. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

1. Agiri hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisien emaitzak; “*Tren Txikito*”ri buruzko erakusketa datak; Nafarroako Gobernura bidali diren baso-aprobetxamenduko baimen eskaerak —A.S., F.G., G.F. eta T.O.renak—; Nafarroako Gobernuak eman dituen baso-aprobetxamenduko baimenak —F.E., J.M.V., A.J.S., J.L.L., J.L., P.S., J.L.L., M.T.,



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

B.B. eta F.G.ri—; Abeltzaintzako zerbitzuak bidali duen esplotazioen erregistroan izandako mugimendua —M.I.M. eta R.E.ren altak eta M.J. eta M.S.nen bajak—.

2. Alkateak hitza hartu du eta gai hauek aipatu ditu:

- Martxan dauden partehartze prozesuak: IREKIBAI, PILGRIN, Toki Entitateen berrantolaketa (toki Mapa).
- Lanbide eskola integratuari buruzko eskaera onartu da Parlamentuan.
- Ur-batzordea. Accionako ordezkariekin bilera egin zen eta ur-hartzeetan eta plantan hobekuntzak egitea proposatu.
- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak herriguneak hobetzeko ematen duen diru-laguntza laister ateratzea espero da.
- Auzo konposta prest dago. Herritarrei emanen zaie hartzeko aukera baten bitartez.
- Enplegu babestuko langileak daude Mankomunitatean eta eskolako leihoak pintatu eta Uraren Bidea garbitzeko ardura eman zaie Zubietan.

8. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 09:10ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.